

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Eskola-garraioa kontratatzea baimendu du gobernuak, gehienez ere 9 plazako ibilgailuentzat, 2017-2018 ikasturterako

*864.000 euroko gehienezko gastua adostu du gobernu kontseiluak gaurko bileran*

Asteazkena, 2017.eko maiatzak 17

Nafarroako gobernuak Unibertsitate eta Hezkuntza Giza Baliabideen zuzendari orokorrari baimena ematea adostu du, sare publikoko eskola-garraioaren zerbitzua kontratatzeko, gehienez ere 9 plazako ibilgailuentzat 2017-2018 ikasturterako eta 864.000 euroko gehienezko gastuarekin (BEZ barne). 351.000 euro 2017ko iraila-abendua tarterako dira eta 513.000, berriz, 2018ko urtarrila-abuztua.

Baimendutako kontratuak luzatzeko aukera ere badago, gehienez ere 4 urteko epean. Hala, kontratuaren balio estimatua 3.141818,18 eurokoa da (3.456.00 BEZ barne), era honetan zatikatuta: 351.000 euro 2017ko aurrekontuan, 864.000 euro 2018ko aurrekontuan, 864.000 euro 2019ko aurrekontuan, 864.000 euro 2020ko aurrekontuan eta 513.000 euro 2021eko aurrekontuan.